



Txirlorak

2.010ean Epailaren 13an Aita Martzel Andrinuagaz Ziortzara bake-eske

I

Kaltzadan gora errores
esker, eskari ta promes.
Bolibarretik Ziortzaraiño
alkarri esku emonez,
bakea ez da berez etorten
begira geldí egonez.

IV

Ziortzan eder baratza
baina kaltzada aldatza
Bake-frutua gura dauanak
bota izerdi garratza..
Ekin ta jarrai, ez da altzora
berez jausiko makatza.

VI I

Eskatu eta eskatu
gagoz, Jauma, ez ukatu!
Guk lantzen dogun bake-baratza
Zuk bigundu ta beratu;
Euskalerríak bake ederra
Leenbaileen daian gozatu.

II

Bakea ezin ekarri,
ez, goitik beera ezarri.
Leenen bakotxak biotz-erdian
bake-landarea jarri,
ondoren begi ta biotz garbiz
begiratuaz alkarri.

V

Bakea ta maitasuna
benetako ondasuna.
Bekezale ta bake egile
Ori da gure jarduna;
orduán arro esango dogu:
"Jaunak, ni naz euskalduna"

VI I I

Ziortzako Andra Mari,
Bake-bidean gidari!
Emen gaituzu zure aurrean
esker on eta eskari;
gaur bake-bila gabilzanontzat
zakiguz bitartekari!

III

Etxea daukagu sutan
artu daigula kontuan.
Alperrik gabilz atxakiz eta
berba ta joko faltsutan,
aidean mila txoriak baino
obe txori bat eskutan!

VI

Oi bakearen usoa
apala eta gozoa!
Gure Erría aspaldi baten
gorrotoz jota gaixoa;
Jainkoa lagun, lortu daigula
bear dan bake gozoa.

Munetxe



olerkia